



**DIRU LAGUNTZA ESKABIDEAREKIN BATERA AURKEZTU BEHARREKO
DOKUMENTUEN ZERRENDA**

- Aurkeztutako dokumentazioa eta jatorrizkoa bat datozela adierazten duen **erantzukizunpeko adierazpena**, idazkariak edo fede emaileak sinatuta.
- Eskabidearekin batera aurkeztu beharreko ziurtagiriak**
 - Eskatutako ekintza egitea onartzeko osoko bilkurak, administrazio batzarrak edo auzokoen batzarrak hartutako erabakiaren egiaztagiria eta aurrekontuan diru erabilgarri dagoelako egiaztagiria.
 - Beste erakunde batzuei xede berarekin dirulaguntza eskatu zaien edo ez eta, baiezkoan, eskuratu den edo ez agerrarazten duen ziurtagiria. Erakundea eta zenbatekoa zehaztu beharko dira.
 - Orube edo eraikinen bat okupatu edo erabili behar izanez gero, hura udal plangintzako araudiarekin bat datorrela eta higiezina edo orubea baliagarri dagoela egiaztatzen duen agiria, udaleko alkateak eta/edo toki erakundeko lehendakariak ontzat emandakoa.
- Azalpen memoria**
 - Proiektuaren deskripzioa, egungo egoerari buruzko memoria eta zer egiteko asmoa dagoen adierazten duen proposamena. Ekintza justifikatzeko kalkuluak.
 - Lanen programa, kronograma, burutzapen epealdia, aurreikusten diren hasiera eguna eta amaiera eguna.
 - Aurreikusitako inbertsioaren energia aurrezpenaren eta eraginkortasunaren justifikazioa.
 - Energia produkzioko instalazioak eskatu dituen toki erakundearen kontsumo elektrikoa adieraztea faktura bidez.
 - Toki erakundeko biztanle kopurua, sexuaren arabera bereizita, eta datuaren iturria.
- Aurrekontua**
 - Aurrekontua, partidaka xehatuta eta banakatuta
 - Finantzaketa plana
 - Aurrekontuko baliabide erabilgarriak
 - Eskatutako beste dirulaguntza batzuk (erakundea, zenbatekoa)
 - Kontratu txikietan, esleipenak oinarritzat hartutako eskaintza ekonomikoak. Eskabidean aurkezten ez badira, froga-agirietan aurkeztu beharko dira.